

## **ZIRKULARRA**

**UDALHITZ Negoiazio Kolektiboa** dela-eta, 2015/12/10ean Euskadiko udalei zirkular hau bidaltzeko erabakia hartu da EUDELeko Batzorde Eragilean:

- EUDELeko Batzorde Eragileak ELA, LAB, CCOO zein UGT sindikatuek eta EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarreak orain arte jarraitutako negoziazio-esparru sektoriala balioetsi nahi du. Izan ere, tresna horri esker, lan-harremanetarako esparru aurreratua egituratu ahal izan da apurka-apurka, eta, horrez gain, bete-betean ere garatu ahal izan dira herritarren zerbitzura dauden euskal toki-instituzioen eraginkortasuna eta kalitatea. Gure udalek, mankomunitateek, partzuergoek eta gainerako sozietate publikoek halaxe ulertu dute, eta Euskadiko 193 udalek eta 28 mankomunitatek zein sozietate publikok 2008-2010eko indarreko UDALHITZERA egindako atxikipenak dira horren erakusgarri.

- Era berean, jakinarazi beharra dago azken urtean 12 negoziazio-mahai egin direla ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuekin, elkarrizketarako giro egokian eta negoziazorako prest. Gaur egun, gainera, *EUDELe*k berak *PROPOSAMENA* egin du 2015eko azaroaren 11n (*l. Eranskina*), langile publikoen lan-baldintzak nabarmen hobetzeko, enplegu publikoaren sorrera bultzatzeko eta langile publikoek azken urteotan galdutako erosketa-ahalmena gutxi-gutxika berreskuratzeko, udal bakoitzeko egoera ekonomikoa eta egoera ekonomiko finantzarioa kontuan hartuta.

- Negoiazio Mahaian *EUDELe*k egindako *PROPOSAMEN* hori egon arren, gaur egun ezin izan da oraindik inolako hitzarmenik lortu sindikatuekin. Hori dela eta, *EUDELe*k berriro adierazi nahi du negoziatzeko prest dagoela eta negoziazio-mahaiari eutsiko diola, harik eta aukera guztiak agortu arte. Hartara, alderdi guztientzat onuragarria den hitzarmena erdietsi ahal izango da. Alde horretatik, udalei eta dagokien gainerako erakundeei eskatu nahi die banakako negoziazio-mahairik ez irekitzeko, UDALHITZeko mahai orokorrean hitzarmen sektoriala errazte aldera.

- Era berean, *EUDELe*k jakin badaki langile publikoek nolako lana garatu duten gure udaletan azken urteotan, testuinguru sozial zein ekonomikoa hain latza izan denean. Hain zuzen ere, azpimarratzekoa da lan-jardunean egin duten ahalegin berezia, baita agertutako interesa eta ekimena ere, oro har horrexek eragin baitu 2015eko ekitaldian helburuak lortzea eta langileen konpromisoak betetzea. Hori dela eta, *EUDELe*ntzat egokia da, nahiz eta sindikatuekin hitzarmenik lortu ez den, udalei 2015eko azaroaren 11n *EUDELe*k egindako

*PROPOSAMENEAN* zehaztutako zenbait neurri ezartzen laguntzea. Beraz **EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteak** udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei **GOMENDATZEN DIE** euren instituzioetan honako neurri hauek onartu ditzaten:

## **ERABAKITZEKO PROPOSAMENA**

### **1.- 2015ean %0,6ko FUNTSA ZUZKITZEA MODERNIZAZIORAKO ETA PRODUKTIBITATERAKO (2015eko azaroaren 11n EUDELekegindako proposamenaren 5. puntuaren 3. paragrafoarekin jarraituz – I. Eranskina).**

Ekitaldi honetan ahalegin berezia egin denez eta konpromiso publikoak bete direnez, neurri batean aurre egin ahal izan zaio langile publikoek azken ekitaldiotan galdutako erosketa-ahalmenari. Hori dela eta, **2015ean** oinarritzko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata-masaren **%0,6ko funtsa zuzkitu beharko litzateke, zerbitzugintza publikoa modernizatzeko eta arrazionalizatzeko eta erakundearen produktibitatea hobetzeko**. Hartara, ekitaldi honetan bertan betearazi liteke, ahal dela; edo aurrekontuaren arabera halakorik egiterik dagoenean, besterik adierazi ezean, 2016 urtearen barruan saiatuz.

### **2.- LANGILE PUBLIKOEK 2012ko APARTEKO ORDAINSARI GEHIGARRIA BERRESKURATZEA (2015eko azaroaren 11n EUDELekegindako proposamenaren 2. puntuarekin jarraituz – I. Eranskina).** **(OHARRA: Oraindik ordaindu/berreskuratu ez duten udalentsat. Soil-soilik aparteko ordainsaria sortu zuten langileei)**

**2015ean, 2012ko aparteko ordainsaria ordaindu beharko litzateke %50,27ko ehunekoetan** (%24,04+%26,23ren baliokidea), abenduaren 26ko 36/2014 Legean eta irailaren 11ko 10/2015 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuta, hurrenez hurren.

Halaber, **2016an eta, aurrekontuaren arabera, ahalik eta lasterren, 2012ko aparteko ordainsariaren 91 egunei dagokien eta berreskuratu gabe dagoen gainerako kopurua (%49,73ren baliokidea) ordaindu beharko litzateke**, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 48/2015 Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.

**3.- 2016ko EKITALDIAN ORDAINSARIA %1 GEHITZEA (2015eko azaroaren 11n EUDELe egindako proposamenaren 5. puntuaren 4. paragrafoarekin jarraituz – I. Eranskina).**

2016ko ekitaldirako, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak %1 gehitu beharko lirатеke 2015eko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneotasuna lortuko litzateke langileen kopuruari eta antzinasunari begira, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.

**4.- EUDELI JAKINARAZTEA**

Erabakitzen da organo eskudunak gomendio hau betetzeko hartutako erabakiari buruzko jakinarazpena EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteari bidaltzea.

**EUDEL, 2015/12/10**

**OHARRA: NEGOZIAZIO KOLEKTIBOARI BURUZ ETA UDALHITZI  
BURUZ EUDELek EMANDAKO GOMENDIOAREN JARRAIPENERAKO  
EGIN BEHARREKOAK**

1. Gomendio honetan jasotako erabaki-proposamena erakundearen ordezkari sindikalei formalki aurkeztea, horren berri izan eta, posible balitz, beharrezkoa den laguntza lor dezaten.
2. Erakunde bakoitzeko organo eskudunak gomendio honetan jasotako erabaki-proposamena onartzea.
3. Erakundeak hartutako erabakiari buruzko jakinarazpen **elektronikoa** ([eudel@eudel.eus](mailto:eudel@eudel.eus)) EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartera igortzea, jarraipena eta kontrola egin ditzan (hurrengo ereduaren arabera):

**Hartzailea:** [eudel@eudel.eus](mailto:eudel@eudel.eus)

**Gaia:** "UDALHITZ: EUDEL-en gomendioari atxikimendua"

**Testua:**

Honen bidez jakinarazten dizugu ..... (Udalaren/Mankomunitatearen/Sozietate Publikoaren izena)-(e)k, ..... datan, UDALHITZ negoziazio kolektiboari buruz EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarreak 2015-12-10ean emandako Gomendioari atxikitzea erabaki duela.

***(Garrantzitsua: Ez da zertan Erabakia igorri behar; nahikoa da jakinarazpena igortzearekin).***

**EUDELen Negoziazio Mahaiaren proposamen instituzionala  
2015eko azaroaren 11**

**UDALHITZ 2015 AKORDIOA**

**1.- Negoziatzeko Konpromisoa, Egutegia eta Diagnostikoa**

UDALHITZ 2015 Akordio honi kalterik egin gabe, EUDELeK eta honakoa izenpetu duten sindikatuak UDALHITZ Akordio Arautzailea osorik berrikusteko negoziazio kolektiboa egiteko konpromiso sendoa hartzen dutela adierazi dute. Helburu horretarako, 2015eko azaroan eta abenduan zehar, alderdiek hitz ematen dute Akordio honetan erantsitako **bilera egutegiari** jarraituko diotela, ondoren beharrezkoak izan litezkeen bilerak alde batera utzi gabe.

EUDELeK eta sindikatuak ondo dakite zailtasun ekonomikoak eta juridikoak sor litezkeela UDALHITZ Akordio Arautzaile berri bat onartzeko orduan, eta hitz ematen dute **fede onez negoziatuko dutela, elkarriketan eta lankidetzaz zintzoan oinarritutako giroan**, eta negoziazio kolektiboaren esparrua agortuko dutela desadostasunak konpontzeko.

EUDELeK hitz ematen du negoziazio esparru honen barneko Euskadiko tokiko erakunde guztiei eskaera egingo diela etorkizuneko UDALHITZ Akordioak **gehieneko aplikazioa** izan dezaten sektorean, eta beharrezkoa izango dela horiekin bat egitea.

Alderdiek onartu dute, UDALHITZ erabat berrikusteko negoziazio kolektiboari begira, eta negoziazio prozesuari lagunduko dion **diagnostikoa** eduki ahal izateko, EUDELeK bere gain hartzea udalei dagozkien datu hauek biltzeko zeregina, besteak beste; datu horiek Akordioa izenpetu duten sindikatuarekin partekatuko dira:

- lanaldia
- oporrak eta baimenak
- lana galtzea / bajen estaldura
- 8/2010 EDL aplikatzearen ondoriozko ordainsariak
- 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren egoera
- gaur egungo ordainsariak
- ordu sindikalak
- langile publikoen kopurua eta sailkapena
- berdintasun plana
- euskararen erabilera sustatzeko barne plana
- lan arriskuen prebentziorako plana
- gizarte-klausulak

## **2.- 2012ko Aparteko Ordainsaria: proposamena**

(EUDELe onartuko luke proposamen hau kentzea eta behin betiko Akordiotik bazter uztea)

Gaur egungo egoera aldaketari eta 2015eko ekitaldian txertatutako aldaketei kasu eginez, zeinetan aurreikusten den Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak 2012ko aparteko ordainsariaren %24.04 itzultzea oro har, testuinguru horretan eta hainbat formula daudenez 2012ko aparteko ordainsaria berreskuratzeko, hori itzultzeko formula bideragarrietako bat ematen da Eranskin moduan. EUDELen proposamenaren ERANSKINA.

Edonola ere, eta aurreko formulari heltzen ez dioten udalentsat, 2015 ean aparteko sariaren %24,04 ordainduko zaie lehenbailehen, eta %26, 2310/2015 EDLn adierazten denaren arabera.

2016an, ordaindu gabeko kopurua itzultzea, harik eta 2012ko abenduko aparteko ordainsaria osorik itzuli arte.

## **3.- Lanaldia. 12. art.**

UDALHITZen 12. artikulua eduki materiala mantentzea eta, hala dagokionean, indarrean dagoen araudira egokitzea, gaur egungo testua ahal beste mantenduz eta aldaketak, hala badagokio, sindikatuen ordezkariekin hitzartuz.

## **4.- Oporrak, lizentziak eta baimenak**

### **4.1 - Oporrak. 28. art.**

2008-2010 UDALHITZen Akordioaren 28. artikuluan bildutako Oporraldiari eustea, hau da, 24 egunekoa langile publiko guztientzat; horretarako, egokitzapen egokia bilatuko da.

### **4.2 – Oporrak. Kasu bereziak. 38. art. LEI kasuetan**

Urtearen ondoren horiez gozatzeko aukera erantsi. Horiei altari dagokion dataren barruan gozatuko dela erantsi, non eta ez den alderdien artean kontrakoa hitzartzen.

**Proposamena:** “38.1 artikulua. Oporrak hasi aurretik sortutako aldi baterako ezintasun egoerak eskubidea emango dio langileari aldi berri bat eskatzeko, eta berriro altan dagoen arte atzeratuko da aldi horretaz gozatzeko aukera. Aldi berria alta jaso eta gero gozatzeko hasiko da, non eta alderdiek ez duten kontrakoa hitzartzen”.

### **4.3 - Gaixotasun edo istripu lizentziak. 47. art.**

20/2012 EDL zela-eta bere garaian egindako proposamenari hobekuntza zehatzak eranstea, lehenengo 6 hilabeteetan %100 eta seigarren hilabeteetik aurrera %80 beteko

dela bermatzeko. Kasu jakin batzuetan, 6 hilabeteak igaro ondoren %100era zabaltzea.

**Proposamena:** 47. artikulua. - Gaixotasun edo istripu lizentzia:

Langile funtzionarioek, beren funtzioak normaltasunez betetzeko ezintasuna eragiten dieten gaixotasun edo istripuen kasuetan, baldin eta medikuaren txosten batek eta dagokion osasun laguntza zerbitzuek bermatzen badute baja, lizentzia eskubidea izango dute dagokion alta medikua lortu arte, bai eta ezintasun iraunkorraren txostena bideratzeko denboran ere; era horretara, erakundeak bermerako legezko baliabide guztiak balia ditzake aurreratutako kopuruak itzultzeko helburuarekin.

Lizentzia horiek Erakundeak kontrolatu ahal izango ditu, egoki irizten dion moduan.

1. Gaixotasun arrunta:

a) Gaixotasun arruntaren kasuan, langile publikoek, Aldi Baterako Ezintasun egoeretan eta salbuespen gisa Aldi Baterako Ezintasunaren 20. egunera arte (naturalak), ordainsari osagarri bat jasoko dute ezintasuna gertatu aurreko hilabetean jasotzen zuten ordainsarien %100era iritsi arte, honako kasu hauetan:

— Ospitaleratzea (ospitalean sartuta egotea, ez delarik nahikoa ondorio horietarako langile publikoa ospitaleko larrialdiko zerbitzuetan hartu izana).

— Ebakuntza kirurgikoa, bai ospitalean bai medikuaren kontsultan egina.

— 1148/2011 EDLren I. eranskinean zehaztutako gaixotasun larriak.

— Arriskuko haurdunaldia.

— Amatasuna zein arrisku egoera edoskitze aldian zehar.

— Oso gaixotasun kutsagarriak, Osakidetza adierazitako epidemia arriskuarekin edo Udalean ondorio berezia dutenak.

— Erakundearen eguneroko lanean eragiten duten gaixotasunak.

Aurreko kasuez gainera, ordainsarien %100era bitartean osatuko da, kontuan harturik absentismo kolektiboa honako kasu hauetan:

— Ondo zaintzen ez badira, gaixoberritzeak eragin ditzaketen gaixotasunak edo egoerak.

— Atsedena behar duten egoerak, medikuaren aginduak horrela frogatzen badu.

— Gaixotasun kronikoak, hurrenez hurren bajak eragingo badituzte.

— Medikuaren tratamendua eta/edo errehabilitazio tratamendua behar duten aldi baterako ezintasun prozesuak.

— Diagnostikorako proba intentsiboak.

Era berean, aurreko kasuetan sartuta ez dauden eta urtebeteko aldian gertatzen diren lehenengo bi bajak (kontingentzia arrunten ondorioz) ekonomikoki ordainduko dira ordainsarien %100era iritsi arte, eta osagarriaren murrizketa aplikatuko da urtebeteko aldian salbuespenezko irizpide betetzen ez duen Aldi Baterako hirugarren Ezintasunaz geroztik (lehenengo bajaren dataz geroztik zenbatzen hasita).

21. egunaz geroztik, ordain ekonomikoa jasoko da ordainsarien %100 osatu bitartean, lehenengo sei hilabeteetan.

Seigarren hilabeteaz geroztik, ordain ekonomikoa jasoko da ordainsarien %80 osatu bitartean, gaixotasun larrien 1148/2011 EDLn jasotako salbuespenezko kasuetan ez dagoen baja bat izan ezik; hala balitz, ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea edukiko luke, ordainsarien %100 osatu bitartean.

b) Aurreko atalean xedatutako ordain ekonomikoa ordaintzeko, langileak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1) Langileak berak edo hura ordezkatzeko duen pertsonak, indarrean den araudian aurreikusitako baldintzetan, baja ofizialki onartzeko ezarritako izapide guztiak bete beharko ditu, eta Akordio honetan ezarritako eskakizunei eta prozedurei jarraitu beharko die.

2) Medikuen gomendioei jaramon egin beharko die, eta Erakundeko zerbitzu medikoek egoki irizten duten edozein azterketa mediko egin beharko dute.

3) Langileak ez dezala, inondik ere, baja eragin duen gaixotasunaren edo istripuaren arrazoiarekin bateragarria ez den jarduera bat egin, ordaindua edo ordaindu gabea, dagokion diziplinazko erantzukizuna kontuan hartu gabe.

4) Langileak ez dezala, inondik ere, baja edo istripuaren egoera borondatez edo justifikatu gabe luzatu, dagokion erantzukizun diziplinarioa kontuan hartu gabe.

c) Aurreko a) atalean aipatzen diren ordainsariak ordaintzeko, altan egonez gero sortuko liratekeen ordainsariak hartuko dira kontuan, Bigarren Tituluko 67. artikuluan aurreikusitako ordaintzeko kontzeptu guztiak zenbatuz.

Helburu horretarako, gaixotasunaren ondoriozko bigarren baja bat lehenengoaren baja berdintzat hartuko da, baldin eta biek arrazoi berberak badituzte eta horien artean ez bada gutxienez lan efektiboko hilabete naturaleko epea igaro; oporraldia ez da lan efektiboko hilabete naturalaren barruan zenbatuko.

Artikulu honetan ezarritako baldintzen bat betetzen ez bada, ez da ordain ekonomiko osagarriarik gauzatuko ez-betetzea gertatzen den lehenengo egunetik beretik eta prozesuak irauten duen bitartean, eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean ezarritako ordainsariak jasoko ditu langileak.

2. Gaixotasun Profesionalaren edo Lan Istripuaren ondoriozko bajaren kasuan, Erakundeak dagozkion laguntza ekonomiko osagarriak jasoko ditu, kasu guztietan, aipatutako ordainsarien %100 osatu arte. Aurreko atalean aipatzen diren ordainsariak ordaintzeko, gaixotasun arruntaren edo lanekoa ez den istripuaren ondoriozko bajaren kasuan ezarritakoaren mende egongo da, eta zenbateko horiek gehitu egingo dira bajaren aurreko urtean ohiko lanalditik kanpo egindako zerbitzuengatik jasotako sarien batez besteko zenbatekoarekin. Helburu horietarako, baja gertatu aurreko urtean egindako zerbitzu bereziengatiko sariak zati 12 egingo litzateke.

3. Euskadiko Tokiko Erakundeentzako Lan Harremanen Protokoloaren esparruan ezarritako Batzorde Parekideak eta Bitartekaritzarako eta Adiskidetzakoak, EUDELen laguntzarekin eta harekin lankidetzan, lanera ez joatearen zergatiak eta helmena aztertuko ditu, jarraitu beharreko parametroak eta metodologia definituko ditu, neurketa sistemak, lortutako emaitzak aztertuko ditu, eta, beharrezkoa balitz, hori murrizteko neurriak proposatuko ditu.

#### **4.4 - Heriotza edo gaixotasun larri/ospitaleratze lizentziak. 49. art.**

Honako kasu hauetan zabaltzea: - senar-emaztea eta seme-alabak: 6 lanegun; gurasoak: 4 lanegun.

**Proposamena:** 49. artikulua 1. eta 2. paragrafoak aldatzea - Senide baten heriotza, istripu, gaixotasun larri edo ospitaleratze lizentzia:

1. 6 laneguneko lizentzia emango da senar-emazte eta seme-alabak hilez gero, 4 lanegunekoa gurasoak hilez gero, 3 lanegunekoa anai-arrebak, aiton-amonak eta ilobak hilez gero.

2. 6 laneguneko lizentzia emango da senar-emazte eta seme-alabek istripu bat edo gaixotasun larri bat edukiz gero edo modu justifikatuan ospitaleratuz gero; 4 lanegunekoa, gurasoek istripu bat edo gaixotasun larri bat edukiz gero edo modu justifikatuan ospitaleratuz gero; 3 lanegunekoa, aiton-amonek, ilobek eta anai-arrebek istripu bat edo gaixotasun larri bat edukiz gero edo modu justifikatuan ospitaleratuz gero.

(...) Gainerako atalak bere horretan gelditzen dira.

#### **4.5 - 51. art. Betebehar saihestezinen ondoriozko lizentzia**

Odola eta burmuina emateko kasuak eta bizi testamentua eta Notario aurreko ekimenak erantsi (ezinbestekoa da egiaztatzea)

**Proposamena:** 51.2. artikulua: Artikulu honen ondorioetarako, izaera publiko zein pertsonaleko betebehar saihestezintzat hartuko dira:

a) Agiri hauek jaulkitzea eta berritzea: NANA, gidatzeko baimena, pasaportea, erakunde ofizialen erregistroek jaulkitako ziurtagiriak, epaitegien eta polizia sailen

zitazioak, odola eta muina ematea, bizi testamentua egitea eta Notario aurrean egin beharreko ekitaldiak.

b) Zinegotzi, Diputatu, Batzarkide edo Parlamentarioaren kargu hautetsi gisa parte hartzen duten Gobernu Organoen eta horien mendekoen bileretara joatea.

#### **4.6 - 53. art. Amatasun eta edoskitze lizentzia**

Lizentzietan berariaz eranstea amniozentesi frogetarako lizentziak.

**Proposamena:** 53. 1. art. Haurdun dauden langile publikoek lanetik ateratzeko eskubidea izango dute haurra jaio aurreko azterketak egiteko, amniozentesi frogak egiteko eta horien ondorengo atsedenetarako eta erditzea prestatzeko tekniketarako, hori egiteko behar den denboran eta horiek lanaldiaren barruan egiteko premia justifikatu ondoren.

#### **4.7 - 60. art. Gai pribatuetaarako egunak**

- Oraingo UDALHITZi eustea, Norberaren Aukerako 6 egunetan. UDALHITZ testua berreskuratzea ondorio guztietarako.

- Oraingo UDALHITZi eustea, antzinasunagatiko baimenari dagokionez. UDALHITZ testua berreskuratzea ondorio guztietarako.

#### **4.8 -63 bis art. (berria: Adiskidetzea)**

Seme-alaben irakasleekin hiru hilabetez behingo bilerara joateko baimena. Bilera bat hiru hilabetez behin. Bileraren hasiera eta amaiera orduaren egiaztagiria. Bilera gehiago behar badira, berreskura egin daitezke.

**Proposamena:** 63. art. bis: "Seme-alaben irakasleekin hiru hilabetez behin bilera batera joateko aukera emango da, Haur Hezkuntza arautuan, Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzan dihardutenean.

Hiruhileko horretan bilera gehiagotara joan behar bada, horietara joateko aukera emango da, baina horretarako baliatutako orduak berreskuratu egin beharko dira.

Aipatutako kasu guztietan, egiaztagiri bat aurkeztu beharko da, zeinetan adieraziko den bileraren iraupena (bilera horren hasiera eta amaiera).

Kanpoan gelditzen dira Guraso Elkarte bilerak, biltzarrak, Eskola Kontseiluaren bilerak eta ikastetxeko ordezkartza goreneko organoak edo antzekoak".

#### **5 -92. art. Ordainsariak**

2012-2015 urteetako erosteko ahalmena berreskuratze formulak bilatzeko helburuarekin. Negoziazio mahaian ehunekoa hitzartuko da, hala badagokio.

**Proposamena:**

2012-2015 urteetan %5 galdu da erosteko ahalmena. Ildo horretatik, alderdiek hitzartu dute 2015eko azken hiruhilekoan ahalmen hori berreskuratzeko formulak aztertuko dituztela, 2019ko denbora mugarekin.

Aurreko lerroaldean adierazitakoari dagokionez, testuinguru ekonomikoa hartu beharko da kontuan, bai eta Udal bakoitzaren egoera ekonomiko-finantzarioa ere, eta hori guztia berreskuratzeko/ordaintzeko aldiak eta/edo epeak finkatu ahal izateko helburuarekin.

Aurrekoari kalterik eragin gabe, alderdiek %0,6 ordaintzea hitzartzen dute, aipatutako %5 zordunduz 2015. urtean zehar.

Aurrekoa gorabehera, 2016ko ekitaldiari dagokionez, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ehuneko 1eko igoera orokorra izango dute 2015eko abenduaren 31n indarrean dauden aldean, homogeneotasun baldintzetan konparazioko bi aldiei dagokienez, bai langile baliabideei dagokienez bai horien antzintasunari dagokionez.

**6 – Laguntza-hobekuntzak**

98. art. eta hurrengoak. Bizitza asegurua eta ezintasun asegurua zenbatekoak, erantzukizun zibila eta kontsumo maileguak eguneratzea.

**Proposamena:**

- 98. art. Bizitza asegurua eta ezintasun asegurua 46.300 euro bitartean handitzea.

-99. art. Erantzukizun zibilaren asegurua 34.650 euro bitartea, handitzea.

-100. art. Kontsumo- maileguak 1.893 euro bitartean (12 hilabete), 3.786 euro bitartean (18 hilabete) eta 5.679 euro bitartean (24 hilabete) handitzea.

**7- Berdintasuna eta parte-hartzea**

Berdintasun planak egiteko eta gauzatzeko eta horren sustapenerako bestelako neurriak gauzatzeko neurri eraginkorrak har daitezen bultzatzea.

**Proposamena:** Hartu beharreko konpromisoak udalez udal zehaztuko dira, eta langileen parte-hartzea bermatuko da:

UDALHITZen konpromisoak zenbateraino betetzen diren aztertzea.

**Egoeraren** diagnostia.

Berdintasuna **bermatzeko plana erredaktatzea.**

### **7 BIS.- Eskubide sindikalak**

20/2012 ELDren 10. artikulua negoziazio mahaien eremuan akordioak ezartzeko aukera ematen du, ordezkaritza eremuan funtzioak modu arrazionalen gauzatzeko akordioak ezartzeko.

UDALHITZ 2008-2010 Akordioaren VI. tituluan adierazitako arauari eusteko konpromisoa.

### **8.- Euskalduntze planak**

UDALHITZen VII. titulua betetzeko neurriak sustatzeko eta hartzeko konpromisoa.

**Proposamena:** Hartu beharreko konpromisoak udalez udal zehaztuko dira, eta langileen parte-hartzea bermatuko da:

UDALHITZen konpromisoak zenbateraino betetzen diren aztertzea.

Egoeraren diagnostika eta euskararen erabilera.

Udal zerbitzuak euskalduntzeko planak.

Erakunde barnean eta herritarrekiko harremanetan erabilera handitzeko neurriak.

Lanpostu berrietan nahitaezko hizkuntza eskakizuna ezartzea.

### **9.- Lan osasuneko sistema publikoa**

**Proposamena:** Lan osasunari dagokionez:

UDALHITZen konpromisoak zenbateraino betetzen diren aztertzea (lan arriskuen prebentziorako plana, Segurtasun eta Osasun Batzordea, gainerako xedapenak).

Lan arriskuen prebentzioa eranstea erakundearen kudeaketaren barruan, betiere, atal hori kontuan hartuta.

Arrisku psikosozialen prebentzioa sustatzeko eta aztertzeke konpromisoa.

### **10- Gizarte-izaerako klausulak**

**Proposamena:** Alderdiak agintzen dute sustatuko dutela udalek erosketa publikoen zein kontratu administratiboen kontratazio baldintzetan gizarte-izaerako klausulak txertatu daitezen, eta agintzen dute, halaber, egiaztatu eta kontrolatuko dutela horiek betetzen diren.

lido horretatik, alderdiek agintzen dute sustatu eta zabalduko dituztela aipatutako gizarte-izaerako klausulak txertatuko dituzten kontratazio baldintza ereduak, eta, beste neurri batzuei kalterik eragin gabe, klausulak bildu beharko dituzte sektorearen Hitzarmena betetzeko, langileen osasuna eta segurtasuna babesteko –arriskuak minimizatuz–, tratu berdintasuna eta bereizkeriarik eza bermatzeko kontratazio publikoan eta ezgaitasunaren alorrean, eta azpikontratazioaren alorreko betebeharrak betetzeko.

## **11. Lan egonkortasuna eta enpleguarekiko konpromisoa**

**Proposamena:** Udal bakoitzean diagnostiko bat egitea eta bertan eranstea enpleguaren bilakaera: amortizazioak, bete gabe dauden lanpostuen estaldurarik eza, ordezkaritzak..., bai eta Udal bakoitzak definitzen duen zerbitzu publikoen ereduari egokitutako enplegu premien azterketa ere, enpleguaren sorrera sustatzearen ildotik.

lido horretatik, eta enplegua eta lan egonkortasuna sustatzeko helburuarekin, Euskadiko udalerriek honakoetarako konpromisoa hartzen dute beren eskumenen esparruan:

### **1.- Barne sustapena:**

Langile publikoen garapen profesionala bultzatzea karrera profesionalaren esparruan, eta, horretarako, sarrera frogetarako deialdiak egitea bete gabe dauden lanpostuak betetzeko, barne sustapeneko sistemen bitartez.

### **2.- Enplegu Publikorako Eskaintza 2015:**

2015ean Enplegu Publikoko Eskaintzak onartzea, modu metatuan bilduko dituztenak, lehenetsi beharreko sektoreen arabera, hutsik dauden postuen ehuneko berrogeita hamar Aurrekontuen Legean ezarritako eremu sektorialetan. Lehenetsiko diren sektoreak zentzu zabalean hartuko dira (iruzurraren kontrako borroka, baliabideen aholkularitza juridikoa...).

Herritarrei gizarte-zerbitzuak ematen zaizkiela bermatzeko eta horiei eusteko helburuarekin, legez bete litezkeen eta bete gabe dauden guztiak eskainiko dira. Horretarako, aintzat hartu beharko da izangaien legezko interesak zaintzeko behar diren berme juridikoak beteko dituela eskaintzak.

Edonola ere, aurreko lerroaldean adierazitakoaren arabera ezin bete litezkeen eta betetzeko dauden lanpostuak bitarteko langile funtzionarioen bitartez edo aldi baterako langileen bitartez beteko dira.

### **3.- Tokiko enplegua indarberritzea:**

Enplegua indarberritzeko helburuarekin, udalek iraupen mugatuko programa bereziak bultzatuko dituzte 2015. urtean zehar, langile funtzionarioekin edo lan-kontratadunekin

betetzeko erakundearen egituraren berezkoak ez diren eremuetan edo gaietan eta dagokion udaleko zerbitzu iraunkorreko zerbitzu zorrotik. Inolako kasuan ez dira formula horien bitartez beteko erakundearen egiturazko enplegu eta/edo lanpostuak.

Tokiko enplegu publikoa indarberritzeko neurri horien ondorioz, udalek aldi baterako lan-kontratadunaren edo bitarteko funtzionarioen bitartez betetzen dituzten lanpostuak deialdi publikoko hautaketa prozesuen bitartez egingo dira, zeinetan egiaztatuko diren berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak.

## **12. Tokiko zerbitzu publikoen mantenimendua eta hobekuntza**

**Proposamena:** Gizarte-zerbitzuak mantentzeko printzipio orokorraren arabera, horiek mantentzeko eta zaintzeko neurriak bultzatuko dira, horien baitan sarturik horren mendeko langileak zein ikastetxeak.

Ildo horretatik, Euskadiko udalek agintzen dute gaur egungo zerbitzu zorroa mantenduko dutela, bai eta handitu ere, herritarren premia objektiboen arabera. Ondorio horietarako, lehentasuna emango zaio zerbitzu publiko horiek zuzeneko kudeaketaren bitartez emateari, eta ahal bezain beste mugatuko dira kanpoko kontratazioak, bereziki, bere jarduerari dagozkion gaiei dagokienez.

Alderdiek agintzen dute kanpoko kontratazioen diagnostiko bat ezarriko dutela, dagozkion azterketa ekonomikoak barne, eta kanporatutako zerbitzuak kudeatzeko modurik egokiena baloratuko dutela, hala badagokio.

Erakundeek langileen lan-baldintzak mantendu daitezen zainduko dute subrogazio kasuetan, bai eta beren soldaten ordainketa zehatzen kasuan ere, dagozkion neurriak hartuz.

## **13. Betetzeko bermea eta konpromisoa**

**Proposamena:** Alderdiek adierazten dute beren borondatea dela Akordio honen baldintza guztiak betetzea eta sektorean ahalik eta aplikazio handiena izatea, eta, horretarako, hitz ematen dute neurriak hartuko dituztela udalek eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako tokiko erakundeek akordio horrekin bat egingo dutela bermatzeko.

Ildo horretatik, UDALHITZ 2015 Akordioa izenpetu ondorengo hiru hilabeteetan, EUDELEk txosten bat emango die izenpetu duten sindikatuei, UDALHITZekin bat egin duten udalen eta beste tokiko erakundeen zerrenda batekin, eta izenpetu duten sindikatuei unean-unean emango zaie jasotako atxikimenduen zerrenda eguneratuta.

Era berean, alderdiek onartzen dute UDALHITZ 2015 Akordio hau indarrean den bitartean aldaketarik egongo balitz edo UDALHITZ 2015 Akordio honetan ezarritako baldintzen betearazpenari eragiten dioten arauen edo aurrekontuen alorreko ezeztapenik egingo balitz, horren ondorioak alderdien artean aztertu beharko direla, eta horrela zehaztu zer helmen eta ondorio izango dituen; horren helburua izango da

UDALHITZ 2015 Akordioaren edukiak aplikatzen direla bermatzea, alde bakarreko edozein neurri hartzeari uko eginez.

**14. Eranskina: 2015eko azaro-abenduko bilera egutegia, honako helburu honekin: UDALHITZ atxikimenduak berrikustea + lan-baldintzen aniztasunaren diagnostikoa + UDALHITZ egokitzea + ordainsarien egokitzapena finkatzea**

Azaroan eta abenduan 6 bilera egiteko proposatutako datak, 2016an beste bilera batzuekin jarraitzeko aukerari kalterik egin gabe.

Alderdiek hitz ematen dute bilera horien barruan honako gai hauek landuko direla:

- 1.-UDALHITZ 2015 Akordioari egindako atxikimenduak berrikustea eta horien jarraipena egitea.
- 2.-Euskadiko udaletako lan-baldintzen diagnostikorako bildutako datuak aurkeztea, eta, hala badagokio, datu bilketaren hobekuntza sustatzea.
- 3.-UDALHITZ Akordioaren berrikusketaren egokitze/egokitzapen orokorra.
- 4.-Akordioaren 5. puntuaren ondorioz egindako ordainsariaren egokitzapenari buruz jarraitu beharreko irizpideak finkatzea.
- 5.-Era berean, aipatutako negoziazio mahaien gai zerrendan, eta lehentasunez, honako gai hauek erantsiko dira:
  - 5.1- UDALHITZ Akordioa modu eraginkorrean betetzeko bermeak udaletatik eta sindikatuetatik sustatzeko formulak.
  - 5.2- Atxikitako Udalen betetze-maila berrikustea, gai zehatzei dagokienez (zehazteko).
  - 5.3- Bajen kudeaketa eta jarraipena, mutualitateak eta datu medikoen konfidentzialtasuna.
  - 5.4- Zerbitzu publikoak kudeatzeko eta lehengoratzeko moduen azterketa.
  - 5.5- Erretiroari buruzko gaur egungo araudiaren analisisa eta azterketa, eta, hala badagokio, aurretiazko erretiroaren ondoriozko sarien egokitzapena.

**BILEREN DATAK (SINDIKATUEKIN ADOSTUKO DIREN DATAK)**

- 2015eko azaroa: 2015/11/11....
- 2015eko abendua: .....
- Beharrezkoa izanez gero, 2016ko datak aho batez zehaztuko dira Akordioa izenpetu duten sindikatuekin batera, negoziazioarekin jarraitzeko.